

## BESTELAKO XEDAPENAK

### GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

## 682

*AGINDUA, 2026ko otsailaren 6koa, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzen baita gaur egun Fundación Deep Tek Gipuzkoa Fundazioa izeneko fundazioaren estatutuen aldaketa.*

2025eko martxoaren 13an, eskabide bat sartu da Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu sailean, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko lehen Fundación Biozientziak-Gipuzkoa Fundazioa izena zuen fundazioaren estatutuen aldaketa; haien artean izenaren aldaketa ere.

Eskabidearekin batera, espedientean dagoen dokumentazioa eransten da.

2024ko azaroaren 19an, fundazioaren patronatuak erabaki zuen estatutuen 3. artikulua aldatzea fundazioaren xedeari eta helburuei buruzkoa, haren jarduketa-eremua zabaltzeko, eta ez mugatzeko biozientzien sektorera, baizik eta «Deep Tech» berrikuntza teknologiko mota guztietara zabaltzeko. Akordioa eskritura publiko bihurtu zen Donostian, 2025eko martxoaren 12an, Gaspar Rodriguez Santos notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 723).

Era berean, 2025eko urtarrilaren 28an, fundazioaren patronatuak erabaki zuen fundazioaren izena aldatzea, eta izena aldatzea estatuetan izena agertzen den artikulua guztietan (lehen Fundación Biozientziak-Gipuzkoa Fundazioa, orain Fundación Deep Tek Gipuzkoa Fundazioa), bai eta egoitza soziala aldatzea ere (estatutuetako 5. artikulua). Bi akordio horiek dakarte estatutuak aldatzea, eta quorum bat, deialdikoa ez baitzen nahikoa izan erabaki horiek hartzeko.

Fundazioen Erregistroak fundazioari eskatu zion zuzen zitzala antzemandako akatsak, eta, 2026ko urtarrilaren 30ean, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu Sailean sartu zen zuzenketa.

2025eko abenduaren 17an, estatutuak aldatzeko behar den quoruma izanik, patronatuak erabaki zuen izena eta egoitza soziala aldatzea. Akordioa eskritura publiko bihurtu zen Donostian, 2026ko urtarrilaren 29an, zuzentzeko eskritura baten bidez, Gaspar Rodriguez Santos notario jaunaren aurrean (protokolo-zenbakia: 147).

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuari dagokio estatutuak aldatzeko espediente hau agindu bidez ebaztea, hauekin bat etorriz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 3.1.a) artikulua; eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien eginkizunak eta jardun-arloak zehazten dituen lehen-dakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren 9.1.n) artikulua.

Espedienteari funtsezkotzat jotzen diren datu eta dokumentu guztiak erantsi zaizkio, eta bereziki bete dira Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 37. eta 51.2 artikuluetan; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babesletzaren eta Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 23ko 115/2019 Dekretuaren 42. artikuluan aurreikusitako baldintzak.

Inskripzioaren ondorioetarako, fundazioaren estatutuen testu bategina, 2026ko urtarrilaren 29an protokolizatzeke eskriturarekin batera aurkeztutakoa (147 protokolo-zenbakia), izango da

azken bertsio balioduna, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroak kontuan hartu beharko duena.

Horrenbestez, estatutuen aldaketa bat dator aplikagarriak diren lege eta erregelamenduetan ezarritakoarekin.

Hori guztia kontuan hartuta,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea orain Fundación Deep Tek Gipuzkoa Fundazioa izena duen fundazioaren estatutuen aldaketa, agindu honen datarekin eta 2025eko martxoaren 12an Gaspar Rodríguez Santos notario jaunaren aurrean egiletsitako eskritura publikoan aurreikusitako moduan (protokolo-zenbakia: 723) eta 2026ko urtarilaren 29an zuzendutako moduan (protokolo-zenbakia: 147).

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta interesdunei jakinaraztea.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, ondorioz, honen aurka aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburu honen aurrean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epean, agindua jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 6a.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,  
MARÍA UBARRECHENA CID.